



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2010-04-18**

VIII. URTEA 1.978. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Edurne Pasabanek geroz eta gertuago ditu 14 zortzimilakoak

TOLOSA Euskal Herrian 10:30ak zirenean lortu zuen mendigoizaleak Annapurnako gailurrera iristea

SHISHA PANGMA Oinarrizko kanpalekuan bi egunetan atsedean hartuko dute eta handik joango dira Katmandura 7



Euskal Herriko 16 pailazo elkartu ziren atzo Leidorren Mokolo zena omentzeko. I. TERRADILLOS

MOKOLO ZENARI GERO ARTE HUNKIGARRIA

TOLOSA Iñaki Odriozola zenaren omenezko emanaldia izan zen atzo, barre egiteko eta negar egiteko ikuskizuna eskaini zuten pailazoek 6

Iritsi dira landa garapena bermatzeko laguntzak

INGURUGIROA Europako Fondoetako diru-laguntzekin eraberritze lanak egingo dituzte Alkizan eta Baliarrainen 4-5

«Herriari bidea emateko» eskatu diote Udalari

IBARRA Jai giroa eta aldarrikapena nagusitu ziren herrian 24 eragilek antolatutako festari esker 6

-50% -40% -35% -20%

LIKIDAZIOA

ERAKUSKETA ALDARRIKAGAIK

BASOKO
ALTZARIAK

larrea auzoa s/n poligono 34, 2
20150 billabona gipuzkoa
tfn.: 943 692 965

www.muebles-basoko.com mueblesbasoko@yahoo.es

K Komikia

Gorka Salaberria



Sentitu, pentsatu, egin



» Uzturretik

Eneritz Otamendi

Jarri al zarete ingurura begira? Denok hain okupatuta bizi garen garai hauetan, ahaztu egiten zaigu tarteka hori egitea ere; gelditu eta ingurura begiratu, gure zilborrestetik begiak altxatu eta gora begira jarri, adibidez. Konturatu al zarete begien bistan duzuen li-

zar, piku, alertzeari hosto berriak jaito zaizkiola? Gereziondoak lo-retan daudela? Eta txoriek ze pozik kantatzen duten azkenaldian? Belazeetan belarra ziztu bizian hazten ari da, orain egun batzuek larreak horiz tindatzen zituen txikori belarra, laster haizeak eramango duen hazi sorta borobil eta zurixka da. Baratzak ere neguko lozorrotik esnatzen ari dira; ilarak eta babak loretan daude, baita marrubiak ere, lurragoldatu, ximaurtu...

Aralarren ez dago belar askorik oraindik, elur kondar batzuk gertzen dira zokoetan pilatuta, satorrek eta basurdeek egin dituzte pikardi latzak goi haietan ere. Behor bakan batzuk ere ikusten dira, na-

parak izango dira, hemengoak maiatzaren lehenaren buelta horretan igoko dira, orain beren moxaltxo jaito berriekin ikusten dira han eta hemen. Ardiak ere pelukeriko txanda hartu eta neguan babestu dituen abrigo lodia kenduta beste umore batean daude, bai baitakite laster goiko larre goxoetan bazkatuko direla, artzainen deskantsurako.

Udaberria leherketa betean dago, eta guztioi eragiten digu gutxiago edo gehiago, baina gozatzten al dugu behar den bezala urte

sasoi honek eskaintzen dizkigun argazki, usain, soinu, kolore, umore, sentsazio nahaspilarekin? Ia denok gusturago, indartsuago sentitzen gara, baina ez da eguna luzatzen ari delako bakarrik, oharkabeen ez ote digute eragin-guk begiratu gabe gure begiek ikusten dituzten gauza txiki horiek guztiek?

Guk identifikatu gabe sudur zu-loetatik sartzen zaizkigun usain horiek guztiek? gure mp3an entzuten ari garen musikaren atzean, oharkabeen entzuten dugun

txorien kantu alaiak? Gure pailazo maitagarri batzuek dioten bezala, sentitu-pentsatu-egin, bihotzarekin sentitu eta buruarekin pentsatu.

Eta gure haurrentzat ereduak nahi baditugu, ondo daude pailazoen bideoak tarteka, baina ez dezagun ahaztu gure haurren eredu printzipala gu garena, erakuts diezaiegun pentsatzen, baina erakuts diezaiegun, batez ere, sentitzen eta gozaten. Sentitu eta gozatu dezagun denok UDABERRIA.

Muxu handi bat denoi!


Iragarki laburrak

LANESKAINZA

■ **Ileapaintzailea.** Ibarrako ileapaindegi batek laguntzailea behar du. Harremanetarako: metxa2@yahoo.es edo 609-79 27 87.

SALGAI

■ **Lokala** Lokala salgai Iruan, Las-kibar bailaran, N-1 errepidearen ondoan. 118 m². 78.000 euro. Harremanetarako deitu 645-72 19 47 telefono zenbakira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

@ XI. HITZA Argazki Lehiaketa.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK oporraldietatik bueltan egin ohi duen moduan Argazki Lehiaketa jarri du abian. Hiru sari eder ditugu parte hartzaileen artean banatzeko; Iturbe eta Artiketxe landetxeetan bi pertsonentzako bi gau eta Berastegiko Larte gaztagileen bi gazta eder. Bidali Aste Santuan aterako argazkiak eta egunkarian argitaratzearekin batera webgunean zintzilikatuko ditugu. Hilaren 28an amaituko da argazkiak bidaltzeko epea:

www.tolosaldekohitza.info

Aurrera, beti aurrera!

» Iritzia

Iñaki Azaldegi Arrieta

Euskaldunon Egunkariaren epaia jakin nuenetik, barnebarnean bizi izan ditudan emozioak doazkizue bote prontoan:

Poza: ez diot Martxelori gehiagorik beharko nola dagoen beraiena eta ez dit berak erantzungo Tolosan hau eta hura ere egin beharko dugula aurre egiteko. Itxurak egiten ona bada ere, 'kalbariyua' zela antzemanda gauden. Parranda ederra eta jendearen aukeraketa hobea.

Amorrua: Egunkaria itxi, lagunak torturatu, dena gezurra zela argi geratu eta hemen ez da ezer gertatuko. Torturatzaileak libre, *Egunkaria* itxita.

Kezka: auzi ekonomikoak ez da hasi. Guk ez dugu kenduko pankarta etxeko balkoitik, hau ez baita bukatu.

Beldurra: torturatu baldin ditzakete Torrealde, Uria, Otamendi... zer egingo ote diete gairantzeko?

Torturatu ondoren torturatu ditzatela salatzeagatik suma-

ria ireki badiezaiekete *Egunkaria*ko hauei, zer inpunitate dute torturatzaileek? Hau estatu demokratikoa omen da, eskerrak! Estatu honen basakeriak belhurtzen nau, batzuetan hezurretaraino.

Harridura: harritu egin nau epaileak. Ez nuen espero epaile espainiar batengandik halako epai argia. Printzipio demokratikoak hautsita daude herri honetan eta, gauden egoeran egonda, dena ez dela ETA esateak

meritua du; egia esateak ez luke meritu izan behar, baina Espainian hala da. Torturaren inguruko adierazpenak ere baliagarriak dira, kontuan izanda Guardia Zibilararen aurkako hitzak direla eta Guardia Zibila estatu espainiarraren zutabe garrantzitsua dela.

Miresmena: akusatuek sortu didatena. Beren lan eredugarria beren buruen defentsan, jendea inplikarazteko argitasuna eta gaitasuna, antolaketa paregabea. Gure erantzunak ere, herri-tarron erantzunak ere, miresmena sortarazi dit, herri honen konfiantza izaten lagundu dit. *Cum laude!*

Zalantza: honetan bai eta gainontzekoetan zergatik ez? Orain, politika besterik egin ez duten Udalbiltzakoak epaituko dituzte Euskal Herriak duen instituzio nazional bakarraren alde lan egiteagatik. Zerk paralizatzen gaitu horren aurrean ere zutik ez jartzeko? edota Sarriz zioen bezala: «Zenbat bero behar du zuen odolak irakiteko?».

Mendekua: pozak egun bat iraun dit, handik gutxira preso-

en hiru abokatu eta beste 7 lagun atxilotu baititu Espainiak, preso- en eskubideen alde lanean ari diren 10 lagun. Batzuk libre, baina beste batzuk izorratuko ditugu pentsatuko zuten, eta, zori-tzarrez, egin. Atxilotutako Saioa Agirre eta Erramun Landa ospitalera eraman dituzte eta denok dakigu zergatik. Eta politiko demokratikoa zuri biolentzia gutzieren kontrakoek isil-isilik jarraituko dute, azken urte luzeotan egin duten bezala. Konplizeak dira eta jakin badakite.

Esperantza: 'Aurrera, beti aurrera!' da artikularen izenburua. Lepoan hartuta edo ahal den bezala. Ez dezagun etsi, hori nahi baitute. Estatu zentralista, antidemokratikoa eta basati honengandik lehenbailehen alde egin behar dugu Euskal Estatu eraikitzeko. Dibortzioa eskubidea da. Agur. Independentistok bat egin behar dugu, bestela jai dugu munstroaren kontra. Are gehiago bertako batzuk ere 'collabo' lanetan ari direnean, biktimabatzen omentzen, beste batzuk nahita ahaztuta, adibidez. Utzi hauek bakean eta independentistok gure bidea urratzen hasi behar dugu.

Aberri Eguna gogoan, aurrera, beti aurrera.



Jendetza bildu zen Andoingo Martin Ugalde parkean absoluzioa epaia ezagutu zenean bost auzipetuak zoriontzera. GARI BERASALUZE

Udaberria puri-purian azoka egun eguzkitsuan

Azoka » Udaberriko produktuak ikusi ahal izan ziren atzokoan; zainzuriak, babak, ilarrak, tomateak, edo tipulak bezalakoak.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna oso alaitu ospatu zen Tolosan.

Eguzkiaren laguntzarekin, as-

kok bueltaxka egitera animatu ziren eta oso giro polita sumatu zen azokan.

Eskaintza ere oso alaitu izan zen, eta pixkanaka udaberriko barazkiak aurrera dihoaztela ikusi ahal izan genuen.

Babak eta ilarrak

Babak eta ilarrak atzo ikusi egin zitaren mahaietan, eta hauekin batera zainzuriak, tomateak edo tipulak

ere udaberriaren pistak eman zizkiguten.

Neguko produktuak, hala ere, oraindik ere aukeran daude eta egongo direla dirudi.

Berdura plazan, bere aldetik, apaingarriko landareen postuak oso ikusgarriak zeuden.

Geranioak dagoeneko aukeran daude, eta hauekin koniferak edota lehorreko landareak ere izan ziren Berdura plazan.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Landareak	Merk.	Gares.
Alegria	1,50	2,00
Geraneoa	2,00	-
Menta	1,50	6,00
Zainzuria	2,80	-

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak	Onddoak potetan	Zizak
	9,00	-
	58,00	100,00

Fruta	Kiwia	Errezil sagarra
	3,50	-
	2,00	4,00

Barazkiak (kiloa)	Tipula berria	Tomatea	Ilarrak
	1,50	4,00	-
	3,25	-	12,00

Barazkiak (sorta)	Espinaka	Erremolatxa	Porruek
	2,00	2,00	3,00

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Barazkiak (Kilo)	Kalabaza	Baratzuri	Azenarioa
	1,60	3,04	6,00
	1,60	2,00	2,00

Hilberria

MIKEL EIZAGIRRE URIA



Zure irribarra eta alaitasuna ez ditugu inoiz ahaztuko



Eizagirre Uria izeko-osabak eta lehengusuak

ZARAUTZ
2010eko apirilaren
18a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



Poxpolo emanaldiko unerik hunkigarrienean. Mokolori abesti bat kantatu zion. I.T.



Goian, Gari, Montxo eta Joselontxo, eta behean, Porrotx eta Marimotots. I.T.

Gero arte hunkigarria Mokolo zenari

Tolosa » Iñaki Odriozola Mokolo pailazoa zenaren omenezko emanaldia izan zen atzo, Euskal Herriko pailazo ezagunenaren eskutik.

E. EZEIZA - I. TERRADILLOS

«Ze zaila den ulertzea, nik bi hanka lurrean eta zuk airean». Halaxe azaldu zuen atzo Iker Galartza Poxpolo pailazoak, Mokolo pailazoaren hutsunea, haren omenez-

ko emanaldiaren unerik hunkigarrienean. Malkoak eta oilo ipurdia agerian izan ziren bai une berezi horretan bai eta emanaldian zehar ere, izan ere, une oro egin zitzaion erreferentzia Iñaki Odriozola Mo-

kolori. Hunkigarria izateaz gain, dibertigarria izan zen atzoko ikuskizuna, eta ez da harritzekoa protagonistak nor ziren ikusita, Euskal Herriko pailazo ezagunenen hartu baitzuten parte, 16 guztira: Porrotx eta Marimotots, Txirri, Mirri eta Txirribiton, Txirri, Mirri eta Txirribiton junior, Gari, Montxo eta Joselontxo, Hipo eta Tomax eta Potxin eta Patxin. Ezohiko emanaldia, eta errepikaezina.

Pailazo talde bakoitzak bere emanalditxoa eskaini zuen, eta tartean Mokoloren inguruko aipamenak egin zituzten. Bukaerarako utzi zuen Poxpolo pailazoak sorpresatxoa, bere omenez eginiko abestia, hain zuzen. Emanaldian zehar maletatxoan gorde zituen Mokolorenak ziren sudurra, ileordea edota zapatak, eta horiek atereaz hasi zen, berari kantatzen zion bitartean. Kantuan Mokolor

utzitako hutsunea aipatzen zuen, baina, Iker Galartza berak aipatu bezala, «joan egin da, baina gure artean dago, beraren inguruko oroitzapenei esker».

Iñaki Odriozola berak aipatu izan zuen ideia zen pailazo guztiek elkarrekin emanaldi bat eskaintzearena. Iker Galartzak bera egon ez izana sentitu zuen, «baina berari omenaldia egiteko modu egokiena zen, bere beste familiak egina».

Hainbat ibartarrek «herriari bidea emateko» ozen eskatu diote Udalari

Ibarra » Herriko 24 eragilek antolatuta, jai giroan «Udalaren jarduteko moduari aurre egin» nahi izan zioten atzo.

ERREDAKZIOA

Atzo Ibarrara hurbilduz gero, festa giroa sumatu zitekeen. Baina, oinarrrian, aldarrikapena eta protesta biltzen zituen jai zen atzokoa. Herriko hogeita lau eragilek elkarlanean antolatuta, egun guztian zehar hainbat ekitaldi egin zituzten, Udalari «errespetua» eskatzeko.

Festaren antolaketan, arlo, helburu eta ideologia ezberdinetako talde nahiz elkarteek hartu zuten parte. Horren erakusle zen ere prestatutako egitaraua. Adin guztietako jendeak hartu zuen parte jaietan, hasi haur eta gazteetatik, eta helduetaraino.

Goizean eman zioten hasiera al-



Arratsaldeko ekitaldiari sok-tira saioarekin eman zioten hasiera. E. EZEIZA

darrikapen jaiari. Plazan elkartu ostean, kalejiran atera ziren herriko sarrerara arte. Tartean, Subegi aurrean eta Euskal Herria kalearen amaiera atsedenditxoak egin zituzten. Hauetan, dantza, jolasak, bertsoak, taloak... izan zirelarik.

Antolatzaileek azal dutakoaren arabera, ekitaldiak gune batean bakarrik pilatu beharrean, jai giroa herri guztian zehar barreiatzea zen helburua, eta lan horretan aritu ziren parte-hartzaileak.

«Festa ireki bat» egiteko asmo

horrekin jarraituz, bazkaria ere modu ezohiko batean egin zuten. Hala, paella erraldoi bat egin zuten Emeterio Arrese plazan, eta han zeuden guztien artean banatu zuten. Honenbestez, edonork jan zezakeen. Muga, paella kopuruak

berak ematen zuena izan zen. Eguneko ekitaldi nagusia arratsaldean izan zen. Herriko plazan elkartu ziren eta soka-tira txapelketarekin eman zioten hasiera. Honez gain, parodia, bertso saioa, poesia erre-zitaldia eta dantza ere izan ziren. Egunari amaiera Gaztetxean eman zioten, Hesian talde nafarraren kontzertuarekin.

24 talde, bat eginik

Eman bidea herriari lelopean ondorengo taldeek antolatuta zuten atzoko ekimena: Alurr Dantza Taldea, Xepla Elkarte, Autoeskola Antikapitalista, Sendi Ekintza Elkarte, Bai Euskal Herriari, Langostino Motozale Elkarte, Haitzetan-Raju Mendi Taldea, Bartola Jai Batzordea, Txirribitu Aisialdi Taldea, Bilgune Feminista, Eneko Aritzaren Lagunak, Euskara Taldea, Gazte Asanblada, Soka-Tira Taldea, Txolarre Irratia, Gazte Independentistak, Herrikolore Aldizkaria, Amnistia-aren Aldeko Mugimendua, Pototxotx Bertso Eskola, Denak futbol taldea Presoen Lagunak eta Subegi Elkarte. Aurrrera begira ekimen gehiago antolatzeko asmoa azaldu zuten atzo, antolatzaileek.



Itzalpean, pedalei eragiten

IRURA ■ Bizikleta gainean eman ziotean jarraipena atzo lehendabiziko Kirol Asteari. Hamabost lagun inguru aritu ziren pilotalekuaren itzalpean izerditan, musikaren erri-

mora pedalei eragiten. Beste hainbat berriz, hauek animatzera hurbildu ziren. Gaur, ekitaldiekin jarraituz, krosak izango dira. Gaztetxoek 10:30ean hasiko dira. E. EZBIZA



Natura artelanetan islatuta

TOLOSA ■ Zabalik da Nisa Goiburu artista tolosarraren *Natura gara* izeneko erakusketa. Atzo iluntzean inauguratu zuten modu oso berezi batean. Alde batetik, Joaquin Araujo-

ren partaideek performance bat egin zuten, eta bestetik, zenbait poema eta haiku errezitatuz. Bilduma, ekainaren 12ra arte egongo da ikusgai Aranburu jauregian. E.E

Edurne Pasabanek 13. zortzimilakoa lortu du

Tolosa ■ Gaur oinarrizko kanpalekura jeitsiko dira, eta egun gutxi barru Shisha Pangmarako bidean jarriko dira.

ERREDAKZIOA

Edurne Pasaban tolosarrak zortzimilakoen bere zerranda handitu du, atzo Annapurna (8.091 metro) igo ostean. Hamahirugarrena izan da, beraz, bakarra geratzen zaio orain, Shisha Pangma (8.027 metro). Annapurna jeistearen ekingo dio azken zortzimilakoari.

Euskal Herrian 10:30ak zirenean lortu zuen mendigoizale tolosarrak gaina, *Al Filo de lo Imposible* telebista saioko taldearekin: Asier Izagirre tolosarra, Alex Txikon euskal herritarra eta Nacho Orviz espainiarrekin. Beraiekin batera, Joao Garcia portugaldarra — hau izan zen lehena gailurra egiten, eta atzo hamalau zortzimilakoak erdietsi zituen — eta beste lau sherpa igo ziren. Uste baino beranduago iritsi ziren tontorrera, eta ondorioz, laugarren kanpalekuan, 7.200 metrora, egin zuten lo atzo. Gaur laugarrenetik oinarrizko kanpalekura jeitsiko dira.

«Luzea eta gogorra»

«Igoera gogorra eta luzea, oso luzea» izan zela adierazi zuen atzo Pasabanek laugarren kanpalekura iritsi zenean. «Bagenekien oso luzea izango zela, baina, ez hainbeste. Gainera, goikaldean izotz ugari-ekin egin dugu topo, eta horrek zaildu egin du igoera erritimoa moteldu beharra izan dugularik». Bestalde, Annapurnaren gailurrak



Edurne Pasaban, Alex Chicon, Nacho Orviz eta Asier Izagirre. RTVE/AL FILO DE LO IMPOSIBLE

berak zailtasun handiak ditu duen tamainarengatik: «Arraroa da muturra, txikia, eta ezin du pertsona batek baino gehiagok aldi berean igo; horregatik, banaka banaka igo beharra izan dugu». Tamainaz gain, formarengatik ere berezia da Annapurna, hiru piko baititu, eta guztiak igo zituzten. «Badaezpada» hiru tontorrak zapaldu eta guztietan argazkiak atera eta filmatu egin dugu, inolako eztabaida eta zalantzarik egon ez dadin».

Atzoko eguna oso zaila izan zela azaldu zuen tolosarrak, eta bereziki azken zatia nabarmendu zuen, izan ere, korridore guztia egiteko

lau ordu behar izan zituzten. «Soka gutxi eraman genuen, eta azken zatirako ezer gabe geratu ginen, ondorioz, nahiko kontuz ibili beharra izan genuen gailurrera iristen arinenean».

Igoera izan ohi da zailena, eta erronka hori gainditu dute, baina, hor ez da bukatzen guztia, igotako jeitsi beharra baitago. «Jeitea geratzen zaigu orain, eta Annapurna mendian luzea dela hartu behar da kontuan». Laugarren kanpalekuan atsenden hartu eta lo egin ondoren, gaur beharrezko bideari ekingo diote, oinarrizko kanpalekura iritsi arte.

Shisha Pangmarako bidean

Behin oinarrizko kanpalekura iritsita ez dira segituan Shisha Pangmara abiatuko. Bertan bi egun igaroko dituzte atsenden hartzeko. «Ondoren, helikopteroa etorriko da gure bila, eta handik Katmandura joango gara. Han hiru egun itxaron beharko ditugu bisa lortu arte». Egin beharreko guztiak egin ostean Shisha Pangmarako bidean jarriko dira. Bosgarrenez saiatuko da tolosarragailur horrekin, aurreko lauretan ez baitzuen lortu. Zortzimilakoetan azkena litzateke berretzat, hamalaugarrena, baina, bere helburua munduko zortzimi-

» ZORTZIMILAKOAK

Igo dituenak

- Everest (8.848 metro). 2001eko maiatzaren 23an.
- Makalu (8.465). 2002ko maiatzaren 16an.
- Cho Oyu (8.201). 2002ko urriaren 5ean.
- Lhotse (8.516). 2003ko maiatzaren 26an.
- Gasherbrum II (8.035). 2003ko uztailearen 19an.
- Gasherbrum I (8.068). 2003ko uztailearen 26an.
- K2 (8.611). 2004ko uztailearen 26an.
- Nanga Parbat (8.125). 2005eko uztailearen 20an.
- Broad Peak (8.047). 2007ko uztailearen 12an.
- Dhaulagiri (8.167). 2008ko maiatzaren 1ean.
- Manaslu (8.156). 2008ko urriaren 5ean.
- Kangchenjunga (8.586). 2009ko maiatzaren 18an.
- Annapurna (8.091). 2010eko apirilaren 17an.

Falta zaiona

- Shisha Pangma (8.027).

lakoak egiten lehen emakumezkoa izatea zen, eta hori lortuko duen ala ez jakitea geratzen da oraindik.

Korearrekin parekatuta

Hain zuzen ere, Oh Eun-Sun hego-korearrekin parekatuta dago une honetan Edurne Pasaban, berak ere hamahiru zortzimilako baititu osatuta. Annapurna falta zaio korearrari, eta, han aurkitzen da orain, igo nahian.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kirola

■ **Irura.** I. Krosa: 10:30ean benjamin, alebin eta infantil mailakoan irteera izango da eta 11:30ean kadeeten eta helduena.

Dantza

■ **Asteasu.** Dantzari Txiki Eguna. Goizetik hasiko dira kalejiran eta 13:00etan frontoian dantza emaldia egingo dute. 17:00etan erromeria izango da.

Zinema

■ **Tolosa.** *Corazon rebelde* Leido-rren 19:30ean eta 22:00etan.

Matrikulazioa

■ **Tolosa.** Maiatzaren hasieran Baxilergoan matrikulatzeko epea denez, Hirukidek ate-ireki jardunaldia antolatu du ostegunerako, hilak 22. Hirukide-Eskolapioetan izango da 17:00etatik 19:00etara.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
■ **Betelu.** Carrillo A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa A. M. San Martin, 5. 112.

» TELEBISTA

28 Kanala
08:30. Zahar berri. **09:00.** Nonochan. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** Klik. **10:30.** On ein! **11:00.** Agoitzko haurrak. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Eskuokin. **12:30.** Barrebusa. **13:00.** (Jarrailpena). **13:30.** 16 mm. **14:00.** San Jose. **14:30.** Gipuzkoa Kultura. **15:00.** Kiroloerak. **15:30.** Wazemank. **16:15.** Klipak.
(*12:30etik 16:15erako blokea lau orduro errepikatuko dute)

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

A Agurrak



Zorionak pottoko!
Egoi Agirrezabala Balerdi (Alegia). Ondo pasa etxeko guztien partetik.




Urte askoan!
Lander Huarte (Irura).
Gaur 4 urte. Zorionak eta ondo pasa aitona-amona, osaba-izeba eta Amaiurren partez.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak


Hilaren 28an amaituko da XI. HITZA Argazki Lehiaketan parte hartzeko epea. Sari bikainak irabazi ditzakezue, animatu eta parte hartu!

Txoko ederrak



TOLOSA ●
Amaiak bidalitako argazkia Suitzan ateratakoa da. Interlaken herrialdean, hain zuzen ere: «Mendiez inguratutako laku zoragarri hau ikusteko aukera izan genuen eta lilurata geratu ginen!!!».

AMAIA RUIZ DE GALARRETA



TOLOSA ●

Kontxi Asturias aldean izan zen Aste Santuan eta Gozon eskualdeko Cabo de las Peñas lurmuturrari ateratako argazki hau bidali du.

KONTXISA-RALEGUI



argazki lehiaketa

bidali opor hauetako argazkiak!

NORA BIDALI?

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbide elektronikora edo HITZAren Tolosako edo Leizako egoitzetara **Apirilaren 6tik 28ra**

o Iturbe
an bi pertsona
sartzeko aukera

Artiketxe
onentzako
eko aukera

agileen eskutitza
er

1. Saria

2. Saria

3. Saria

HITZA aste santuko argazki lehiaketa